

IES Francisco de Vitoria BHI
 IES Zubiri Manteo BHI
 IEFPS Ategorri-Tartanga GLHBI
 IEFPS Politécnico Easo GLHBI
 IEFPS Mendizabala GLHBI
 IMH Elgoibar
 IEFPS Fadura GLHBI
 IEFPS Miguel Altuna GLHBI
 IEFPS Usurbil GLHBI

Berrikuntzak Ikastetxeetan

Novedades en los Centros

IES Francisco de Vitoria BHI
 IES Zubiri Manteo BHI
 IEFPS Ategorri-Tartanga GLHBI
 IEFPS Politécnico Easo GLHBI
 IEFPS Mendizabala GLHBI
 IMH Elgoibar
 IEFPS Fadura GLHBI
 IEFPS Miguel Altuna GLHBI
 IEFPS Usurbil GLHBI



IES FRANCISCO DE VITORIA BHI

Azterketa berriak gizarte aldaketari erantzunak emateko

Sarritan ongizatearen gizartearen "laugarren zutabe" batez hitz egiten da, gizarteak baliabide publikoekin beharra duten adinduei, ezintasunen bat duten pertsonen edo mendekotasun mailaren bat dutenei laguntza eman behar zaiela adierazi nahian.

Kolektibo horiek kalitatezko bizitzaz goza dezaten eta ahalik eta autonomoen bizi daitezen, gero eta gehiago behar dira profesional berriak. Gasteizko Francisco de Vitoria BHI Komunitateko Zerbitzuena da LHko adarrik berrienetakoa. Bi titulaziorekin erantzungo dio behar horri: "Gizarteratzea" eta "Arreta sozio-sanitarioa", sarritan ondo ezagutzen ez direnak. Hobeto ezagutzeko, horien arduradunetako batekin hitz egin dugu.

- Zer da Arreta sozio-sanitarioko laguntzailea?

- Arlo sanitarioan zaintza fisikoaz, higieñez, lehen sorospenez, elikaduraz eta abarretaz arduratzen den profesionala da, behar bereziak dituzten pertsonen arduratzen dena (adinduak, gaixo kronikoak, ezinduak...); eta arlo psikosozialean, Aisialdiko jardueraz arduratzeko gai izango da, eta mendekotasun mailaren bat duten kolektibo guztiek izan ditzaketen behar fisiko eta psikosozialak antzemateko gai izango da, dagokien espezialistaren gainbegiradapean.

-Ez da Erizaintzako laguntzailearen gauza bera?

- Bi espezialista osagarriak dira; Arreta soziosanitarioko laguntzailearena iraupen luzeagoko ikastaroa da ordea, 2000 ordukoa, eta arreta sanitarioko saretik kanpo lan egingo luke (erietxeetan, osasun zentroetan eta abarretan); aldiz, sare horretan lan egingo lukete Erizaintzako laguntzaileek. Arreta sozio-sanitarioko zikloko edukietan, eremu sanitarioaz gain pertsonaren alderdi psikosoziala ere lantzen da; beraz, pertsonaren Arreta Osoa lortzen da.

- Orduan, zein eremutan lan egin dezake?

- Profil profesionalaren arabera, erakunde publikoetan nahiz pribatuetan lan egin dezake, bereziki zaharren egoitzetan, ezindu psikikoen, fisikoen edo sentsorialen zentroetan; aisialdiko eta eguneko zentroetan; ezinduen

Nuevos estudios para dar respuestas al cambio social

A menudo se habla de un "cuarto pilar" del estado de bienestar, haciendo referencia a que la sociedad debe garantizar con medios públicos un apoyo a los mayores que lo necesiten, además de a las personas con discapacidad o con algún grado de dependencia.

Para que estos colectivos disfruten de una vida de calidad y lo más autónoma posible, son necesarios de manera creciente unos nuevos profesionales. Una de las ramas de la F. P. más recientes en el IES Francisco de Vitoria, la de Servicios a la Comunidad, responde a esa necesidad con dos titulaciones, "Integración Social" y "Atención Socio-sanitaria", no siempre bien conocidas. Para conocerlas mejor hemos hablado con algunos de sus responsables.

- ¿Qué es el Auxiliar de Atención Socio-sanitaria?

- Es un profesional que se ocupa en el ámbito sanitario, de los cuidados físicos, higiene, primeros auxilios, alimentación,... de las personas con necesidades especiales (ancianos, enfermos crónicos, discapacitados...); y en el ámbito psicosocial, será capaz de ocuparse de las actividades de Ocio y Tiempo Libre, Comunicación Alternativa, Intervención Psicosocial, así como de la detección de necesidades físicas y psicosociales que puedan presentar todos los colectivos con algún grado de **dependencia**, bajo la supervisión del especialista correspondiente.

-¿No es lo mismo que un Auxiliar de Enfermería?

- Son dos especialistas que se pueden complementar; la diferencia estaría en que el Auxiliar de Atención Socio-Sanitaria es un curso de mayor duración, 2000 horas, y trabajaría preferentemente fuera de la red de atención sanitaria (hospitales, centros de salud...), donde trabajarían los Auxiliares de Enfermería; en el ciclo de Atención Socio-sanitaria los contenidos abarcan no sólo el ámbito sanitario sino también el aspecto psicosocial de la persona, con lo que se consigue una **Atención Integral** de la misma.

- Entonces, ¿en qué ámbitos puede trabajar?

- Ateniéndonos a su perfil profesional, podría ejercer sus funciones tanto en instituciones públicas como privadas, específicamente en residencias de mayores, discapacitados psíquicos, físicos o sensoriales; pisos tutelados de mayores, de discapacitados...; centros de día, centros de ocio y tiempo libre...; centros de inserción ocupacional de discapacitados; Servicios de Ayuda a Domicilio.

-¿Habéis detectado demanda de estas personas?

- Es fácilmente constatable lógico que las personas demanden cada vez más una **atención más global**, que vaya más allá de los cuidados meramente sanitarios y atienda también a las necesidades psicológicas y sociales de la persona.

-¿Se necesita un perfil especial para estudiar este ciclo?

- Cualquier chico o chica con el graduado en ESO puede acceder, aunque es adecuado especialmente para personas que disfruten con la relación personal, que sean sensibles a los problemas de los demás, comunicativas, solidarias...



laneratze zentroetan; Etxez etxeko laguntza zerbitzuetan...

-Pertsona horien eskaera antzeman al duzue?

- Erraz antzeman daiteke, logikoa da pertsonak gero eta arreta osoagoa eskatzea, zaintza sanitarioez gaindiko arreta eskatzea, pertsonaren behar psikologiko eta sozialak ere lantzea.

-Profil berezia behar al da ziklo hori ikasteko?

- DBHn graduatutako edozein neska-mutil sar daiteke, harreman pertsonalekin gozaten duten pertsonentzat da bereziki egokia, baina baita besteen arazoekiko sentikorrak direnentzat, komunikatiboak, solidarioak... direnentzat ere.

- Francisco de Vitoria ikastetxean titulazio berria ere eskaintzen duzu Batxilergoa dutenentzat; Goi mailako teknikaria gizarteratze gaietan. Zergatik sortu da titulazio hori?

- Gure gizartean azken urteetan gertatu diren aldaketa nabarmenek eskatu dute gizarte esku-hartzearen eremuan prestaketa tekniko zehatzak ugaritzea eta berrikustea. Gizarteratzeko gaietan Goi mailako teknikariaren titulua erantzuten die behar horiei.

-Zer egiten dute?

-Gizarteratze teknikariok egoera berezietan dauden pertsona zehatzekin lan egiten dugu, gizarte lanaren eremuaren baitan. Ez dugu "marginalitatearekin", "zaharrekin", "etorkinekin" lan egiten, behar bakoitzaren arabera sistematikoki gogoeta egiten dugu. Lehentasuneko gizarteratze beharra duten kolektibo edo herritarren sektoreekin lan egiten dugu: gizarteratze prozesuan dauden pertsonekin.

-Aipa zenitzake titulazio hori eginda lor litezkeen lanpostu zehatz batzuk?

-Etxez etxeko laguntza programetako teknikaria, gizarteratze edo prebentzio programetako; Laneratze teknikaria. Lan bitartekaria. Adin txikikoen, babestutako pisuetako edo harrera zentroetako hezitzailea. Ezinduen hezitzailea. Lanbide Tailerretako hezitzailea. Familia langilea. Oinarriko mugigarritasun eta laguntza teknikoetako teknikaria. Bere gaitasunak eskatzen dituzten beste lanpostu batzuk, eta Gizarteratzearen sektorean sortuko diren berriak.

- Azkenik, zein baliabide izan dituzue?

-Hasteko, irakasleak. Bi zikloetarako bederatzi lagun gaude guztira, hainbat espezialitateatik etorritakoak. Kanpo laguntzak oso garrantzitsuak dira: gizarte zerbitzuen eremuan lan egiten duten pertsona eta erakunde guziekin harremanetan jarri gara, kanpo harreman hori gabe gure eskaintza ez litzateke osoa izango. Gure ikasleentzat interesgarri diren zentroetara bisitaldiak egiten ditugu, eta sarritan kanpoko norbait gonbidatzen dugu ikasgelan bere esperientzia kontatu dezan. Eremuei dagokienez, etxeko laguntza tailerra eraiki dugu, bainugela, sukaldea eta oheak dituen, eta laguntza teknikoetarako materiala erosi dugu. Gizarteratzerako teoriako ikasgela bat prestatu dugu telebista, sarean dauden bost ordenagailu eta kontsultak egiteko baliabideak dituen eremu batekin.

Eskerrik asko Begoña, Carmen eta Iñakiri.



- También se ofrece en el Francisco de Vitoria una titulación nueva para quienes tienen el Bachillerato, la de Técnico Superior en Integración Social. ¿Porqué se han creado estos estudios?

- Los grandes cambios que se han dado en nuestra sociedad en los últimos años han exigido un incremento y una revisión de las prestaciones técnicas específicas en el campo de la intervención social. El título de Técnico Superior en Integración Social responde a esas nuevas necesidades.

-¿A qué se dedican?

-Los técnicos en I.S. trabajamos con personas concretas en situaciones concretas, dentro del ámbito del trabajo social. No trabajamos con "la marginalidad", "la vejez", "la inmigración" sino que reflexionamos sistemáticamente sobre las distintas necesidades. Trabajamos con los sectores de población o colectivos que son objeto de intervención social prioritaria: personas en procesos de inserción y reinserción social.

-¿Podrías nombrar algunos puestos concretos a los que se puede acceder?

-Técnico de programas de ayuda a domicilio, de programas de prevención o inserción social; técnico en Inserción Ocupacional. Mediador Laboral. Educador de residencias de menores, pisos tutelados o centros de acogida. Educador de discapacitados. Educador de Talleres Ocupacionales. Trabajador Familiar. Técnico de Movilidad básica y de Ayudas Técnicas. Otras ocupaciones que requieran sus competencias, y aquellas nuevas que se generen en el sector de la Intervención Social.

- Por último, ¿con qué recursos habéis contado?

-Para empezar, el profesorado. Para los dos ciclos estamos nueve personas en total, procedentes de diversas especialidades. Son muy importantes los apoyos externos: hemos establecido relación con todos los organismos y personas que trabajan en el campo de los servicios sociales, sin esa relación externa nuestra oferta estaría incompleta. Hacemos visitas a centros de interés para nuestro alumnado, y también invitamos con frecuencia a personas de fuera a compartir su experiencia en el aula. Respecto a los espacios, se ha construido un taller de apoyo domiciliario, dotado con baño, cocina, y camas, y se ha comprado material de ayudas técnicas. Para Integración Social se ha dotado un aula de teoría con televisión, cinco ordenadores en red y zona de recursos para consulta.

Gracias a Begoña, Carmen e Iñaki.

I E S Z U B I R I - M A N T E O B H I

Sinergiak Eroski Bidaiarekin lankidetzan

2002-2003 ikasturtetik, Zubiri-MANTEO BHIko Turismo Sailak goi mailako BIDAIA AGENTZIEN Formazio zikloa eskaintzen du ondorengo helburuekin:

- Goi mailako Turismo informazioa eta Merkaturatzea formazio zikloa eskatzen duen Ostalaritza eta Turismo familiarako formazio eskaintza osatzea.
- Sektoreko enpresek erabiltzen dituzten teknologietan oinarritutako formazioaren alde egitea, besteak beste: AMADEUS kudeaketa globaleko sistema, Bidaia Agentzien kudeaketa softwarea, hainbat produktu turistikoren Salmenta eta Erreserba Programak.

Turismo enpresekin egindako harreman ugarien artean, Institutuak horietako askorekin lankidetzan hitzarmenak lortu ditu, horien artean EROSKI BIDAIK (EB) nabarmendu behar da, ondorengo ataletan labur genezakeen lankidetzan hitzarmena baitu:

- EBeko profesionalak eskaintako informazioa ikasleentzat, bulegoetan bertan LPko moduluetan egitera begira, Ikastetxean emateko zailak diren arloak hartuz, bidaia agentziaren beraren arlo eksklusiboak baitira, besteak beste, EBBYS Kudeaketa Programa eta EB kalitate sistema.
- Benetako dokumentazioarekin ikasleek nahiz EBeko langileek erabiltzen duten materialaren prestaketan lankidetzan.
- Ikasleen gaitasunen arabera lan kontratua egiteko konpromisoa.
- Ikastetxeko baliabideak erabiliz EB langileentzat formazio ikastaroak egitea.
- Irakasleek aurrez aipatutako formazio ikastaroetara joan ahal izango dute, praktikak egiteko agentziako bulegoetara sartu, eta produktu berrien aurkezpenetara joan.

Joan den hiru urtekoan, EROSKI BIDAIK agentziak AMADEUS ikastaroa egin du langileentzat eta gainerako bulegoetara, hainbat komunitate autonomotan daudentara, formazio hori zabaltzeko aukera aztertzen ari da, Zubiri-Manteon dauden bideokonferentzia instalazioak erabiliz. Oraintxe bertan hainbat proba tekniko egiten eta edukiak prestatzen ari gara enpresako Formazio teknikaria den Patricia Clotetekin batera.

Eskaintza gehiago izan ditugu eskaerak baino, eta une honetan ikasketak amaitu dituzten ikasleen %100ek sektoreko enpresetan lanean dihardute, Zubiri-Manteon jasotako formazioari, aipatutako lankidetzan hitzarmen horren ondorioz jasotako formazio gehigarriari eta aisialdiaren sektoreak, eta bereziki bidaiaren, izan duen hazkuntza handiari esker.

Enpresarekin egindako lankidetzan-hitzarmen mota horrek gertuko harremana izatea eskatzen du ikastetxearen eta lan merkatuaren artean, biezako sinergia eskaintzen duen lehentasunezko tresna izatera iritsiz, Gure irakas-kuntza sistema benetako mundura gerturatuz. LHk ezin du eduki teoriko zaharretan iltzatuta geratu. Hainbeste aldatzen den eta gero eta gehiago eskatzen den mundu honetako erronkei arrakastaz aurre egin diezaikegu.



Sinergias en la colaboración con Viajes Eroski

Desde el curso 2002-2003 el Departamento de Turismo del I.E.S Zubiri-MANTEO B.H.I. imparte el Ciclo Formativo de nivel superior AGENCIAS DE VIAJE con estos objetivos:

- Completar la oferta formativa de la familia de Hostelería y Turismo, en la que se imparte el Ciclo Formativo de nivel superior Información y Comercialización Turística.
- Apostar por una formación basada en tecnologías que utilizan las empresas del sector como es el Sistema de Gestión Global AMADEUS, software de gestión de Agencias de Viajes, Programas de Reserva y Venta de distintos productos turísticos.

Entre los numerosos contactos con empresas turísticas, el Instituto llega a acuerdos de colaboración con muchas de ellas, entre las que destaca VIAJES EROSKI (V.E.) con quien alcanza un convenio de colaboración que podríamos sintetizar en los siguientes apartados:

- Formación para el alumnado impartido por profesionales de V.E. y dirigida a la realización del módulo de FCT en las propias oficinas, abarcando aquellos aspectos que son de difícil impartición en el Centro, ya que son exclusivos de la propia agencia de viajes, como son el Programa de Gestión de EBBYS, Programa de reservas de hoteles COVE y el sistema de calidad de V.E.
- Colaboración en la preparación de materiales con documentación real que utilizan tanto el alumnado como los trabajadores de V.E.
- Compromiso de contrato laboral en función de las aptitudes del alumnado.
- Desarrollo de cursos de formación para trabajadores de V.E. utilizando los recursos del Centro.
- El profesorado puede asistir a los cursos de formación citados en los puntos anteriores, acceder a distintas oficinas de la agencia con el fin de realizar prácticas, y acudir a las distintas presentaciones de nuevos productos.

Durante el pasado trienio, VIAJES EROSKI ha realizado cursos de AMADEUS para sus trabajadores y está barajando la posibilidad de hacer extensiva esta formación al resto de oficinas, sitas en distintas comunidades autónomas, utilizando las instalaciones de videoconferencia disponibles en Zubiri-Manteo. En estos momentos estamos ejecutando distintas pruebas técnicas y preparando los contenidos con la Técnico de Formación de la empresa Patricia Clotet.

Hemos tenido más ofertas que demanda, y en estos momentos el 100% del alumnado que ha finalizado sus estudios está trabajando en empresas del sector. Este hecho es debido a la formación recibida en Zubiri-Manteo, a la formación adicional gracias al citado convenio de colaboración, así como al fuerte incremento que ha experimentado el sector del ocio, y en concreto el de los viajes.

Este tipo colaboración-convenio-cooperación con la empresa requiere de una relación cercana entre el Centro educacional y el mercado laboral, llegando a ser una herramienta primordial que proporciona sinergias para ambos, acercando e integrando nuestro sistema educativo en el mundo real. La F.P. no puede correr el riesgo de quedarse anclada en los antiguos contenidos teóricos. Podemos enfrentarnos con éxito a los numerosos retos que plantea este mundo tan cambiante y cada vez más exigente en el que vivimos.

IEFPS ATEGORRI-TARTANGA GLHBI

Software librea, gogoetagai Erandion



Joan den maiatzaren 2an egin zen Erandioko Ategorri-Tartanga GLHBI software libreari buruzko gogoeta jardunaldia. Helburu nagusia ikasle eta irakasleak sentsibilizatzea zen, enpresetan eta gizartean geroz eta presentzia handiagoa duen errealitatea baita, eta erakunde akademikoak sentsibilizatu nahi izan zituzten energia gehiagoz horrelako aplikazioak dinamiza ditzaten.

Lanbide heziketako ikasleei gehien eragiten dien hiru eremutan software mota horren ezarpena eta garapena aztertu zuten hiru adituk: hezkuntzan, enpresan eta erakundeetan.

Antonio Russok, Italiako irakasle eta programatzaile adituak, institutuen software liberako migrazioa posible dela agertu zigun, Europako Gizarte Funtsak finantzaturako migrazio proiektu batean zuzendari gisa duen esperientzia kontatuz. Programa horrek Bolzano eskualdeko (Italia) 23 udaletako 83 ikastetxeri baino gehiagori eragiten dio eta 12.000 ikasle eta 1700 irakasleri baino gehiagori.

Iñigo Losadak, enpresa konponbideen ezarpenean aditua denak, azaldu zigun enpresetan gero eta ohikoagoa dela aplikazio mota horren erabilera eta mundu mailako enpresa liderrek (Google, Cisco, Yahoo, Akamai, Amazon...) hartu dutela software askea erabiltzeko erabakia kalitate, sendotasun, segurtasun eta antzeko ezaugarriengatik.

Azkenik, Igor Blancok, Tknikako sistemen administratzaileak, software libreak irakaskuntzan duen etorkizunerako aurreikuspena eta errealitatea aztertu zuen.

Ondoren izan zen eztabaidan, guztiek bat egin zuten software librearen ezarpena itzulerarik gabeko errealitatea zela esanez, inbertsio gutxi behar den euskarri, formazio eta garapen enpresak sortzea ahalbidetuz, negozio aukerak handiagotzen baititu; eta horrela, aberastasuna sortu eta dirua software nagusia garatzen duten beste herrialdeetako enpresa handientzat bakarrik ez izatea eragiten baitu.

Gainera, herritarrei aldaketa teknologikoaren, informazio gizartearen eta ezagutzaren protagonistak izatea errazten die.

Azkenik, aplikazio mota horrek duen kalitatea ondo frogatuta dagoela baieztatu zuten: Linux Sistema Operatiboa, Apache (Web orrien zerbitzarietan munduko liderra), Open Office, Gimp, Postfix...

Informazio gehiago hemen: www.ierandio.net

El software libre, tema de reflexión en Erandio

El pasado 2 de mayo se celebraron en el IEFPS Ategorri-Tartanga de Erandio unas jornadas de reflexión sobre software libre. El objetivo principal era sensibilizar a profesores y alumnos sobre una realidad cada día más presente en las empresas y en la sociedad y estimular a las instituciones académicas para que dinamicen con más energía este tipo de aplicaciones.

Tres expertos analizaron el desarrollo e implantación de este tipo de software en los tres ámbitos que más afectan a los alumnos de formación profesional: el educativo, el empresarial y el institucional.

Antonio Russo, profesor italiano y experto programador, nos demostró que es posible la migración de los institutos a software libre, contándonos su experiencia como director de un proyecto de migración financiado por el Fondo Social Europeo, que afecta a más de 83 centros de enseñanza de 23 ayuntamientos de la región de Bolzano, Italia, y a más de 12.000 alumnos y 1700 docentes.

Iñigo Losada, experto en implantación de soluciones empresariales, nos explicó que en las empresas cada día es más frecuente el uso de este tipo de aplicaciones, y que empresas líderes de ámbito mundial (Google, Cisco, Yahoo, Akamai, Amazon...) han optado por utilizar software libre por sus prestaciones de calidad, robustez, seguridad, etc.

Por último, Igor Blanco, administrador de sistemas de Tknika, analizó la realidad y las expectativas de futuro del software libre en la enseñanza.

En el debate posterior, todos coincidieron en señalar que la implantación del software libre es una realidad sin retorno, porque aumenta las oportunidades de negocio al posibilitar la creación de empresas de desarrollo, formación y soporte para las que se necesita poca inversión y permitir, de esta manera, la generación de riqueza y que el dinero no se vaya solamente a las grandes empresas que, en otros países, desarrollan software propietario.

Además, facilita a los ciudadanos ser más protagonistas del cambio tecnológico y de la sociedad de la información y el conocimiento.

Por último, se argumentó que este tipo de aplicaciones tiene una calidad más que demostrada: Sistema Operativo Linux, Apache (líder mundial en servidores de páginas Web), Open Office, Gimp, Postfix...

Más información: www.ierandio.net



IEFPS POLITÉCNICO EASO GLHBI

125 urte DONOSTIAN,
50 urte AMARAN



125 años en
DONOSTIA, 50 años
en AMARA

Lanbide Heziketako egungo irakaskuntzek garapen oso zabala izan dute XIX. mendean sortu zirenetik. Donostian, langile gaituen eskaerak erantzuna izan zuen 1880an Donostiako Arte eta Lanbideen Udal Eskola sortu zenean. Gaur egun EASO Goi mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutua dena 125 urteko tradizio horretatik sortu zen.

Gainera, 2006. urte honetan gaur egungo eraikinaren, Amaran, Felipe IV.ean dagoenaren, inaugurazioaren 50. urteurrena izango dugu. Lehen ikasturtean, Arte eta Lanbideen Udal Eskolari dagokion zatian, modelatu eta pintura irakatsi ziren. 1956-1957 ikasturtean bertan Industri Maisutzako trebakuntza 20 ikaslek amaitu zuten eta hurrengo ikasturtean industri perituen lehen promozioa atera zen. 1955ean irakaskuntzen eskuduntza Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari transferitu zitzaion. Arte eta Lanbideen Udal Eskola desagertu egin zen eta hurrengo 48 urteetan Peritu Eskolarekin partekatua genuen eraikina.

Gaur egun, EASO GLHBI Politeknikoa tailer eta eremuak egokitzeko eta berritzeko prozesuan sartuta dago, inguruko eskaeraren beharrei erantzuteko eta eguneratzeko. 657 ikasle ditugu hasierako formazioan eta 100 baino gehiago formazio jarraian; erantzun beharrek plan estrategikoa eta zaindu beharrek konpromiso berritzaileak ditugu. 2002 urtean, ISO 9001-2000 lortzearekin, mugarrira ezarri genuen ikastetxearen dinamismoan eta berrikuntza eta hobekuntzaren aldeko apustuan. 2005ean, Euskaliten 400 puntu, EFQM kudeaketa eredua, 2005eko Euskadiko zilarrezko Q lortzearekin, kalitate eta etengabeko hobekuntza sistemarekin dugun konpromisoa berretsita geratu da.

Ikastetxeak irakaskuntza eskaintza zabala du. Batxiler Zientifiko-teknologikoaren bi lerro eta sei Lanbide Familia (Eraikuntza eta Obra Zibila, Elektrizitate-elektronika, Zura eta Altzaria, Mekanika, Lan Arriskuen Prebentzioa eta Ingurumen Kimika), 5 trebakuntza ziklo ertain eta 7 goi mailako ditu. A eta D eredu linguistikotan eskaintzen da hainbat formazio ziklotan.

Donostialdean erreferentzia izatea erronka eta konpromisoa da. Hainbat ziklotan Gipuzkoako eskaintza bakarra gara eta beste batzuetan, Bitxigintza, esaterako, Komunitate Autonomoko bakarrak gara. Gure kokapena, hainbat txokotatik irisgarria izanik, gertuko ikastetxe bihurtzen gaitu, bakarra eta zehatza. Hezkuntza taldeen profesionaltasunean oinarritutako etorkizuneko apustu garbiarekin, kalitatean, ezagutzan, berrikuntzan eta teknologia berrietan oinarritutako estrategien alde eginez.

Irakasleak, ikasleak, familiak... EASO POLITÉCNICOAren hezkuntza komunitatearen osagai guztiek egin dugu ikastetxe zabal, dinamikoa, anitz eta malguaren alde. Jasangarria, baliabideak sistematizatu eta optimizatzen dituen. Arreta pertsonalizatua, ikasle gorrentzako irakasle bereziak (ARANSGLren lankidetzarekin), ikasleen orientazioa edo hainbat proiektutan parte hartzea (Catania-Sicilia Batxilergoko elkartrukeak, Ikasketa proiektuak: URRATSBAT), Gipuzkoako Aldundiaren babesarekin, gure potentzialaren lagina besterik ez dira. EASO GLHBI POLITÉCNICOAK historia berreskuratu eta berrikuntza eta etengabeko hobekuntzaren lerroan jarraitzeko apustua egin du.

Las actuales enseñanzas de formación profesional han tenido un desarrollo muy extenso desde que fueron creadas en el siglo XIX. En Donostia, la demanda de trabajadores cualificados tuvo respuesta en la creación de la Escuela Municipal de Artes y Oficios de San Sebastián en 1880. El actual

Instituto Específico de Formación Profesional Superior Politécnico EASO surge de esa tradición de 125 años.

Además, este año 2006 conmemoramos el 50 aniversario de la inauguración del edificio actual, situado en Felipe IV, en Amara. El primer curso se impartieron aquí enseñanzas de modelado y pintura en la parte correspondiente a la Escuela Municipal de Artes y Oficios. Ese mismo curso 1956-1957 finalizaron 20 alumnos la formación de Maestría Industrial y el curso siguiente salió la 1ª Promoción de Peritos Industriales. El año 1955 se trasfiere al Ministerio de Educación y Ciencia la competencia de las enseñanzas. La Escuela Municipal de Artes y Oficios desaparece y durante los siguientes 48 años se comparte el edificio con la Escuela de Peritos.

Actualmente, el IEFPS Politécnico EASO se halla en un proceso de adecuación y acondicionamiento de talleres y espacios para responder y actualizar los equipos que el entorno demanda. Con 657 alumnos en formación inicial y más de 100 en formación continua, tiene un plan estratégico al que responder y compromisos innovadores que atender. El año 2002, con la obtención de la ISO 9001-2000, marcó un antes y un después en el dinamismo del centro y su apuesta por la innovación y la mejora. En 2005, con la consecución de los 400 puntos de Euskalit, modelo de gestión EFQM, Q de Plata de Euskadi 2005, nuestro compromiso con el sistema de calidad y mejora continua ha quedado ratificado.

El centro cuenta con una amplia oferta educativa. Dos líneas de Bachillerato Científico-Tecnológico y seis Familias Profesionales (Construcción y Obra Civil, Electricidad-Eléctrica, Madera y Mueble, Mecánica, Prevención de Riesgos Profesionales y Química Ambiental), que desarrollan 5 ciclos formativos medios y 7 ciclos superiores. Se oferta en modelos lingüísticos A y D en varios ciclos formativos.

Ser un referente en Donostialdea es un reto y un compromiso. En determinados ciclos somos la única oferta en Gipuzkoa y en otros, como Joyería, únicos en toda la Comunidad Autónoma. Nuestra localización, la accesibilidad desde tantos rincones, nos convierte en un centro próximo, único y específico. Con una apuesta clara de futuro basada en la profesionalidad de nuestro equipos docentes, apostando por estrategias basadas en la calidad, el conocimiento, la innovación y las nuevas tecnologías.

El profesorado, el alumnado, las familias... todos los componentes de la Comunidad Educativa EASO POLITÉCNICO hemos apostado por un centro abierto, dinámico, diverso y flexible. Sostenible, que sistematiza y optimiza sus recursos. La atención personalizada, la dotación de profesorado específico para alumnado sordo (con la colaboración de ARANSGLI), la orientación del alumnado o la participación en diferentes proyectos (intercambios en Bachillerato Catania-Sicilia, proyectos de Emprendizaje: URRATSBAT), con el apoyo de la Diputación de Gipuzkoa no son más que una muestra de nuestro potencial. IEFPS POLITÉCNICO EASO apuesta por recuperar su historia y continuar por la línea de la innovación y la mejora continua.

IEFPS MENDIZABALA GLHBI

Abiadura handia Gasteizen:
fabrikazio mekanikoan teknologia
berrien alde

2002/2003 ikasturtean, Mendizabala GLHBik, Fabrikazio Mekanikoaren Sailaren bitartez, pauso garrantzitsua eman zuen "abiadura handiko" teknologia (MAV) irakaskuntza arautuko curriculumean (Hasierako Formazioko ikasleak) nahiz inguruko enpresentzat formazio ikasturteen bitartez birziklatze profesionalen sartze aldera.

Abiadura handia (MAV) gaur egun oinarriak finkatuta dituen teknologia da eta kontzeptuen benetako iraultza ari da izaten. Orain arte nahikoak ziren mekanizazio prozesuak zaharkituta geratu dira eta ebaketa tresnen garapenaren ondorioz, gero eta azkarragoak diren erreminta makinei egokitutako mekanizazio estrategia



berriekin ordezkaten ari dira; horrek guztiak ahalbidetzen du pieza oso zehatzak eta osatuak mekanizatzea, bereziki moldeen industrian, estanzazioan eta aeronautikan.

Gaur egun, Mendizabala GLHBI beste sei ikastetxerekin batera lankidetzan ari da ikerketa programan, TKNIKA Garapen Zentroak koordinatuta inguruko industria ehunera teknologia hori hedatu nahian, betiere, abiapuntu gisa Ikastetxeak hartuz.

Garrantzitsua da nabarmentzea programa hori hasieratik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak babestu duela, Institutuari gai horretan egungo eta etorkizuneko beharren arabera ekipamendua eskainiz.

Alta velocidad en Vitoria-Gasteiz:
Apostando por las nuevas
tecnologías en fabricación mecánica

En el curso 2002/03 el IEFPS Mendizabala GLHBI a través del Departamento de Fabricación Mecánica, dio un paso importante encaminado a incorporar la tecnología de "alta velocidad" (MAV), tanto en el currículo de enseñanza reglada (alumnos de Formación Inicial), como en el reciclaje de profesionales por medio de cursos de formación, diseñados para empresas del entorno.

La alta velocidad (MAV) hoy en día es una tecnología con bases consolidadas que está suponiendo una verdadera revolución de conceptos. Los procesos de mecanizado que hasta ahora eran suficientes, han quedado obsoletos y están siendo sustituidos, debido al desarrollo de las herramientas de corte, por nuevas estrategias de



mecanizado que, adaptadas a máquinas herramientas cada vez más rápidas, permite mecanizar piezas muy precisas y complejas, principalmente en la industria del moldeo, estampación y aeronáutica.

Actualmente el IEFPS Mendizabala GLHBI está colaborando en esta línea con otros seis centros en un programa de investigación, que coordinado por el Centro de Desarrollo "TKNIKA", pretende hacer extensiva esta tecnología al tejido industrial del entorno, tomando como punto de partida los Centros Educativos.

Es importante resaltar que este programa ha sido apoyado desde su inicio por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, dotando al Instituto de un equipamiento acorde con las necesidades actuales y futuras en esta materia.

IMH ELGOIBAR

Txandakatze bidezko formazio sistema berritzailearen jardunaldia

Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuak, Frantziako CESI erakundearekin elkarlanean jardunaldia antolatu zuen joan den martxoaren 21ean, txandakatzearen (enpresan lana eta ikastetxean formazioa uztartu) formazio sistema aurkezteko. Txandakatze sistema Estatu mailan guztiz ezezaguna da, aitzitik Europan oso hedatuta dago, batez ere Frantzian, baita unibertsitate mailan ere.

Jardunaldiaren helburua zen txandakako irakaskuntza sistemak eskaintzen dituen aukerak azaltzea, alternatiba izanik unibertsitate mailako ikasketetan eta enpresen beharrei egokitutako langile kualifikatuak lortzeko orduan. Jardunaldia enpresa-arduradunei, hezkuntza-zentroetako zuzendari eta orientatzaileei, enplegu-agentzietako arduradunei, aukeraketa-aholkularitzetako arduradunei eta, oro har, enpleguarekin eta prestakuntzarekin zerikusi duten guztiei zuzenduta zegoen.

IMHk formazio sistema hau eskaintzen duen Ingeniaritzan erabiltzen duela 10 urte, estatu mailan aitzindariak izanik. Emaitzek arrakasta bermatzen dute ingeniariak enpresen neurriira prestatzerako orduan: titulodun %90ak ingeniari-tza ikasketak ekin zituzten enpresa berean jarraitzen du, ikasketak amaitu ondoren.

Jardunaldia aurkezteko antolatu zen prentsaurrekoan AFMko zuzendari orokorrak azpimarratu zuen etorkizunean seguruenik sektoreak beharko dituen lanbideen atal garrantzitsu bat alternantzia moduko formazio ereduetan oinarritu beharko direla, lana eta ikasketak partekatzea alegia, non kontratatuak izango diren langileak enpresen beharrei erabat egokituta egongo diren.

Jardunaldia Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Sailburuordeak inauguratu zuen eta Confebasko Presidentearen hitzek itxi zuten. Azalpenak anitzak izan ziren; Frantzia, Italia eta IMHko Ingeniaritza Eskolaren kasuak ezagutu ziren, enpresetako praktika onak azaldu ziren (Zodiac Taldea, Estarta Rectificadoras, Talleres Aratz eta Goi Alde High Speed) eta baita ikastetxeetako praktika onak (Estia, Aforp, IMH). Mahai inguruan, erakundeetako arduradunek (Hobetuz, Lanbide, Confemadera) eta enpresa arduradunek (Fagor, Ederlan, LKS) parte hartu zuten.



Jornada sobre el innovador sistema de formación en alternancia

El Instituto de Máquina-Herramienta de Elgoibar llevó a cabo el pasado 21 de marzo, en colaboración con el organismo francés CESI, una jornada técnica donde se presentó el sistema formativo en alternancia (combinación de trabajo en empresa y formación), prácticamente desconocido en el Estado y sin embargo, ampliamente extendido en Europa, sobre todo en Francia, incluso a nivel universitario.

El objetivo de la jornada era dar a conocer las posibilidades de que ofrece el sistema de formación en alternancia, como alternativa de estudios universitarios y reclutamiento de personal integrado en las empresas.

Estaba dirigida a los responsables de recursos humanos de empresas, directores y orientadores de centros formativos, agentes de empleo, consultoría de recursos humanos y, en general, a todas aquellas personas relacionadas con la formación y el empleo.

El IMH aplica este sistema de formación en la Ingeniería que imparte desde hace una década, siendo pioneros en el Estado. Los resultados avalan el éxito de esta formación de ingenieros "a la carta" de las

necesidades de la empresa: el 90% de los titulados continúan trabajando en la misma empresa donde iniciaron sus estudios de ingeniería.

En la rueda de prensa organizada para la presentación de la jornada, el director general de AFM destacó que posiblemente en el futuro una parte importante de los empleos que el sector vaya requiriendo sea basados en formaciones como la alternancia, combinación de trabajo y estudio, con una completa adaptación del personal contratado según las necesidades de la empresa.

La jornada fue inaugurada por la viceconsejera de Universidades del Gobierno Vasco y se cerró con el discurso del presidente de Confebask. La exposición fue diversa, desde los casos de Francia, Italia y la Escuela de Ingeniería IMH; se hablaron sobre las buenas prácticas de empresas (Grupo Zodiac, Estarta Rectificadoras, Talleres Aratz y Goi Alde High Speed) y centros formativos (Estia, Aforp, IMH). En la mesa redonda organizada participaron representantes de entidades (Hobetuz, Lanbide, Confemadera) y empresas (Fagor, Ederlan, LKS).

IEFPS FADURA GLHBI

25 URTE
DINAMISMOZ

25. urteurrenaren oroitzapen gisa, Fadura Institutuak sarreran **"Omenaldia ezagutzaren trantsizioari"** eskultura du, Roberto González Arteche irakaslearen lana. Engranajeetatik abiatuta altzairuan **"LHren potentzia, abiadura eta sendotasuna kultura eta ezagutzarekin"** konbinatu ditu.

Ikasturte honek esanahi berezia du guretzat: Fadura Institutuaren 25. urteurrena ospatzen ari gara. Atzean utzi ditugu askoz ere baliabide gutxiagorekin lan egiten genuen garaiak, baina irakasle taldearen dedikazioa eta gogoia berbera da. Haietako asko oraindik klaustro berean gaude.

Lanari ekin zion lehenengoa zuzendaria izan zen, Agustín Uribe-Etxebarria. Trebeziak eta maisutasunez egin zituen gauzak eta 1980-1981 ikasturtean eskaini zen hezkuntza eskaintzan egokitzapenak egin zituen. Lanak oraindik martxan zirenean, aurrez ikusitako beharren egokitzapen hobea bilatu nahirik hainbat lokalen kokapena aldatu zuen eta, batez ere, eremuko irakasle talde txiki bat osatu zuen, ordura arte Lanbide Heziketako ikastetxerik izan ez zuten (baina dagoeneko hiru Batxiler Institutu handi zituzten) inguruko gazteen beharrei erantzun egokia emango zien ikastetxe dinamiko eta lehiakorra martxan jartzeko erronka bere egingo zuena.

Gogoan dugu oraindik lehen zuzendari hark zein argi zuen klaustroa, batez ere, guztiz parte hartzailea egin nahi zuela, ez irakasleen artean bakarrik, baita ikasle eta ikasleen familien artean ere. Esaterako, egin zen lehen bilera ez zen izan ez irakasleekin, ez ikasleekin: Getxoko Ekitaldi Aretoa izan zen gure ikasle izango zirenen gurasoekin.

Hasiera-hasieratik, irakasle teknikoek ekin zioten tailerretan, horma zurietan ekipamendu eta altzariak jartzeko eta egokitzeko lanei. Ikasleen lehen promozioek ere asko lagundu zuten, bereziki, tresneria atalean, lehenengoa izan zen, Petronor petrolioa fintzeko enpresa sortu berriaren behar tekniko kualifikatuei erantzutea jarri baitzen erronka gisa. Badakigu promozio haiek arrakasta nabarmenez erakutsi dutela beren profesionaltasuna eta, batzuetan, enpresari gisa aritu direla. Horrek harrotasunez betetzen gaitu.

Gaur egun, heziketa eskaintza horren konfigurazioa aldatu egin da eta irakaskuntzako beste profesional batzuek DBHko ezagutzak eskaini dituzte DBHn, Batxilergoan eta Lanbide Heziketako hiru azpisistemetan. Kudeaketarako tresna hobeak ditugu, ekipamendu informatiko berritzaileak... baina, batez ere, komunikazioa eta parte hartzea heldutasun demokratikoa agertu duen gizartearen sustatzeko gogo bizia mantentzen dugu.

25 AÑOS DE
DINAMISMO

Como recuerdo de su 25 Aniversario, el Instituto Fadura cuenta en su acceso con la escultura **"Homenaje a la transición del conocimiento"**, obra del profesor Roberto González Arteche, quien partiendo de un engranaje, combina en acero **"la potencia, velocidad y firmeza de la F.P. con la cultura y el conocimiento"**.

Este curso tiene un significado especial para nosotros: estamos celebrando el 25 aniversario del Instituto Fadura. Lejos quedan aquellas fechas en las que con bastantes menos recursos que los actuales pero con el mismo entusiasmo y dedicación un grupo de profesores, muchos de los

cuales aún continuamos perteneciendo a este claustro, nos pusimos manos a la obra. El primero de todos, el director, Agustín Uribe-Etxebarria que supo manejar el timón con destreza y maestría, hizo algunos reajustes en la oferta educativa que se ofreció el curso 1980-1981, modificó, con la obra todavía en marcha, la disposición de algunos locales buscando una mejor acomodación a las necesidades previstas y, sobre todo, configuró un pequeño equipo de profesores de la zona para que asumieran el reto de poner en marcha un centro dinámico y competitivo que diera buena respuesta a las necesidades de los jóvenes en una zona que no había dispuesto de un dentro de Formación Profesional hasta el momento, cuando disponía ya, nada más y menos, que de tres grandes Institutos de Bachillerato.

Recordamos todavía cómo el primer director tenía muy clara la idea de crear un claustro en el que imperara, sobre todo, un estilo netamente participativo, no sólo entre el profesorado, sino también ampliado al alumnado y a sus familias. Por ejemplo, la primera reunión que se celebró no fue ni con el profesorado ni con el alumnado: se celebró en el Salón de Actos de Getxo con los padres y madres de nuestros futuros alumnos.

Ya desde el comienzo los profesores técnicos pusieron manos a la obra para habilitar e instalar el mobiliario y equipamiento en las paredes todavía desnudas de los talleres. Las primeras promociones de alumnos y alumnas también arrimaron el hombro de modo sobresaliente, especialmente en la sección de Instrumentación, que fue pionera, ya que se planteó responder a las necesidades de técnicos cualificados de la empresa recién creada, la refinería de petróleo de Petronor. Sabemos que aquellas promociones han aportado su profesionalidad a muchas de las empresas del entorno con éxito destacado y, en algunos casos, como empresarios y empresarias. Esto nos llena de orgullo.

Hoy en día ha cambiado la configuración de la oferta educativa y otros profesionales de la enseñanza han aportado sus conocimientos en la ESO, en el Bachillerato y en los tres subsistemas de la Formación Profesional. Tenemos mejores herramientas para la gestión, equipamientos informáticos innovadores... pero, sobre todo, la misma pasión por fomentar la comunicación y la participación en una sociedad que ha apostado por la madurez democrática.

IEFPS MIGUEL ALTUNA GLHBI IEFPS USURBIL GLHBI

Bikaintasunezko Urrezko Zigiluak erakundeen kudeaketa ziurtatzen du

Usurbilgo Lanbide Eskolak eta Bergarako GLHBI Miguel Altunak Bikaintasunezko Urrezko Zigilua lortu zuten "Club de Gestión de Calidad" deritzan erakundearen eskutik. Erakunde hau EFQMren ordezkaria da Espainia mailan.

Zigilu hau lortzeko aurretik memoria aurkeztu behar izan zuten, bertan ikatetxeen azkenengo urteetako emaitzak eta horiek lortzeko emandako urratsak azalduz 500 puntu baino gehiagoko balorazioa izan zuelarik.

Ebaluazioa egin zutenean zera egiaztatu zuten: Memorian aipatzen ziren kudeatzeko sistemak eta hauek emaitzetan izan zuten eragina. Aldi berean helburuen lorpenean interes taldeen (ikasle, langile, familiak) izan zuten eskuhartzea

Europar Bikaintasunaren Urrezko zigilua lortzeko Ikastetxeek 1997an 1. autoebaluazioa egin zuenetik gaur arte egindako lanaren errekonozimendua suposatzen du.

Azkenengo 10 urte hauetan kudeaketa eta berrikuntza arloan bideak irekitzen joan dira aitzindari izaten ISO 9002: 94 eta Investors in People zertifikatuak lortzen, GUNEKA antolakuntza diseinatzen eta ezartzen, horretarako sarean lan eginez. Erabilitako metodología hori izan da arrakasta handia izan duena proiektu desberdinak zabaltzeko eta ezartzeko IKASLANeko ikastetxeen artean.



El Sello de Oro de Excelencia Europeo avala el buen hacer de las organizaciones

Los IEFPS de Usurbil y Miguel Altuna de Bergara acaban de ser galardonados con el Sello de Oro de Excelencia Europeo que les ha sido concedido por el Club Gestión de Calidad, representante en España de la EFQM (Fundación Europea para la Gestión de Calidad).

Este sello es concedido a aquellas organizaciones que tras presentar una memoria y pasar una evaluación externa, acreditan una puntuación de +500 puntos.


Durante la evaluación se trata de contrastar y verificar aquellos aspectos recogidos en la memoria y que afectan a los resultados obtenidos por los Centros así como la implicación de los grupos de interés: alumnos, familias y personas en la consecución de los mismos.

La concesión del galardón en Enero de este año ha supuesto un reconocimiento a la labor desempeñada por estos dos Centros desde que realizaron su primera autoevaluación en 1997.

A lo largo de estos años han ido abriendo camino en el ámbito de la gestión y de la innovación aplicando la metodología de trabajo en red que tan grandes éxitos ha reportado a los centros de IKASLAN, siendo pioneros en la obtención de la certificación ISO 9002:94, en el diseño e implantación del proyecto GUNEKA así como en la obtención de la certificación Investors in People



IKASLANi ATXIKITAKO ZENTRUAK CENTROS ASOCIADOS A IKASLAN



ARABAKO IKASLANi ATXIKITAKO ZENTRUAK / CENTROS ASOCIADOS A IKASLAN ALAVA

1	IES ZARAObE BHI Tel: 945 39 30 00
2	IES ESCUELA AGRARIA MENDIKOI ARKAUTE BHI Tel: 945 28 53 87
3	IES SAMANIEGO BHI Tel: 945 60 01 12 / 60 02 81
4	IES CANCELLER AYALA-GREGORIO MARAÑÓN BHI Tel: 94 672 18 70 / 00 86
5	IES MURGIA BHI Tel: 945 43 02 28
6	IES ANITURRI BHI Tel : 945 30 04 00
7	IEFPS MENDIZABALA GLHBI Tel: 945 00 04 40
8	IES (ITS) CIUDAD JARDIN BHI (ITB) Tel: 945 23 37 14
9	IES FRANCISCO DE VITORIA BHI Tel: 945 27 06 55
10	IES (ITS) HOSTELERIA GAMARRA BHI(ITB) Tel: 945 25 80 25
11	IT DE CONSTRUCCION Tel: 945 00 12 00

BIZKAIKO IKASLANi ATXIKITAKO ZENTRUAK / CENTROS ASOCIADOS A IKASLAN BIZKAIA

1	IES URRITXE-ZORNOTZA BHI Tel: 94 673 20 12	13	IEFPS ATEGORRI-TARTANGA GLHBI Tel: 94 467 53 11 / 52 61
2	IES BARRUTIALDE BHI Tel: 94 625 11 43	14	IES ANDRA MARI BHI Tel: 94 456 27 20
3	IES CONSTRUCCION BIZKAIA BHI Tel: 94 401 38 40	15	IES OSTALARITZA BHI Tel: 94 456 04 58 / 02 53
4	IES "MINAS" BHI Tel: 94 437 61 04	16	IEFPS FADURA GLHBI Tel: 94 406 90 00
5	IEFPS NICOLAS LARBURU GLHBI Tel: 94 418 02 66	17	IEFPS IURRETA GLHBI Tel: 94 466 88 00
6	IES BIDEBIETA BHI Tel: 94 426 27 77	18	IES ESCUELA DE HOSTELERIA DE LEIOA BHI Tel: 94 601 24 46
7	IES I. AROZENA BARRUETA TAR BENITO BHI Tel: 94 618 67 40	19	IES MUNGIA BHI Tel: 94 674 06 00
8	IEFPS ELORRIETA ERREKA-MARI GLHBI Tel: 94 402 80 00	20	IES ONDARROA - LEKEITIO BHI Tel: 94 683 00 98
9	IES EMILIO CAMPUZANO BHI Tel: 94 433 33 05	21	IEFPS REPELEGA GLHBI Tel: 94 495 59 03
10	IES ESKURTZE BHI Tel: 94 444 44 08 / 43 58	22	IEFPS SAN JORGE GLHBI Tel: 94 400 49 30
11	IES TXURDINAGA-ARTABE BHI Tel: 94 412 57 12 / 31 60	23	IES SATURNINO DE LA PEÑA BHI Tel: 94 496 13 55
12	IES ESCUELA AGRARIA MENDIKOI DERIO BHI Tel: 94 454 14 21		

GIPUZKOAKO IKASLANi ATXIKITAKO ZENTRUAK / CENTROS ASOCIADOS A IKASLAN GIPUZKOA

1	IEFPS ARETXABALETA GLHBI Tel: 943 79 79 00	13	PLAIAUNDI-IRUN I. Tel: 943 61 75 47
2	UROLA I. AZKOITIA-AZPEITIA BHI Tel: 943 85 21 74 / 81 37 70	14	IES LASARTE-USURBIL BHI Tel: 943 37 06 11 / 943 37 28 52
3	IEFPS MIGUEL ALTUNA GLHBI Tel: 943 76 24 91 / 76 38 40	15	IES MUTRIKU BHI Tel: 943 60 35 45
4	IFP CONSTRUCCION DE DONOSTIA / DONOSTIAKO ERAIKUNTZA LHI Tel: 943 00 05 00	16	R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA BHI Tel: 943 78 21 50
5	IEFPS POLITÉCNICO EASO POLITEKNIKOA GLHBI Tel: 943 45 54 22	17	IEFPS DON BOSCO GLHBI Tel: 943 51 04 50 / 54 / 58
6	IES ZUBIRI - MANTEO BHI Tel: 943 32 60 88 / 943 27 87 00	18	IES (IT) ESCUELA DEL PAPEL (BHI) BT Tel: 943 67 29 00
7	ARMERIA ESKOLA Tel: 943 20 32 44	19	TOLOSALDEA GOIMAILAKO LHI Tel: 943 65 11 47
8	ES. UNI. EIBAR-ERMUA BHI Tel: 943 20 84 44 / 943 17 62 57	20	IEFPS USURBIL GLHBI Tel: 943 36 46 00
9	IES ELGOIBAR BHI Tel: 943 74 80 19	21	I. MONTE ALBERTIA Tel: 943 13 42 23
10	I. MAQUINA HERRAMIENTA Tel: 943 74 41 32	22	MENDIKOI-FRAISORO NEKAZARITZA ESKOLA Tel: 943 69 21 62
11	HERNANI INSTITUTUA Tel: 943 55 11 88	23	IES ZUMAIA BHI Tel: 943 86 08 09
12	IEFPS BIDASOA GLHBI Tel: 943 66 60 10		